

Topalekua

81 zk. 2013ko uztaila

julio 2013 - n.º 81

1. orr.: UPV/EHU-ko Gizarte Kontseiluak 2013ko aurrekontua onartu du. aurrekontua 392,9 milioikoa da, 2012koa baino % 9,34 txikiagoa

2. orr.: Unibertsitate-ikasle ohien langabezia: 6.000 milioi euroko "alferrikako" inbertsioa

3. orr.: Unibertsitateen ekoizpen zientifikoaren arabera, Euskadi 7. postuan dago I-UGR rankingean / Gazteek lan-merkatuan zegoen lekualdatzearen aurkako ohiko joera aldatu dute

4. orr.: ELGA-ren eta EB21-en hezkuntzako batez besteko gastua baino % 15 handiagoa da Espainiako estatukoa

UPV/EHU-KO GIZARTE KONTSEILUAK 2013KO AURREKONTUA ONARTU DU. AURREKONTUA 392,9 MILIOIKOA DA, 2012KOA BAINO % 9,34 TXIKIAGOA

Gaur, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak uztailaren 17an bilera izan zuen Bilbon, eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen 2013ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen. Aurrekontua 392,9 milioi eurokoa da, hots, aurreko ekitaldiko baino % 9,24 txikiagoa (2012koa 432,9 milioi eurokoa izan zen).

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabaki hori hartu zuen, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak ekainaren 20an onartu zuen Aurrekontu Proiektua eta Gizarte Kontseiluko Ekonomia eta Finantza Batzordeak Proiektu horri buruz egin zuen txostena aztertu ondoren. Aipatutako txosten horretan Batzordeak berritasun nagusiak eta kapituluaren, programen eta gastu-unitateen arabera finantza-azterketa zehatza jaso ditu, bai eta zenbait alderdi hobetzeko gomendio batzuk eman ere.

Kapituluen arabera azterketan egiaztatu da UPV/EHUK honako diru-esleipen hauek egingo dituela:

- Langile-gastuei 288,29 milioi euro (I. Kapituluaren); kopuru osoaren % 73 eta 2012an baino % 4,15 gehiago.
- Gastu arruntetan 76,22 milioi euro (II. Kapituluaren); kopuru osoaren % 19,4 eta aurreko urtean baino % 23,72 gutxiago.
- Inbertsioetan 23 milioi (VI. Kapituluaren); aurrekontuaren % 5,86; 2012ko kopuruarekin erkatuta, % 54,11 jaitsi da.
- Gainerakoa, kopuru osoaren % 1,38, honela erabili da: finantza-gastuetan, diru-laguntzetan eta Gizarte Kontseiluaren aurrekontua 215.402 eurokoa da: 2012koa baino % 39,45 txikiagoa eta 2011koa baino % 60,2 txikiagoa.

	2012ko aurrekontua	2013ko aurrekontua	Aldaketa	Kopuru osoaren %
I. Kapitulua	276.797.216	288.298.148	%4,15	%73,37
II. Kapitulua	99.940.240	76.229.952	-%23,72	%19,40
III. Kapitulua	304.882	139.173	-%54,35	%0,04
IV. Kapitulua	4.144.700	3.782.510	-%8,73	%0,96
VI. Kapitulua	50.152.229	23.010.983	-%54,11	%5,86
VIII. Kapitulua	87.100	100.000	%14,81	%0,03
IX. Kapitulua	1.184.615	1.184.616	-	%0,30
Gizarte Kontseilua	350.000	215.402	-%38,45	%0,05
GUZTIRA	432.960.982	392.960.784	-%9,24	%100,00

(2. orrietan jarraitzen du)

Doktorego-programak

Kontseiluak Autonomia Erkidegoari 99/2011 Errege Dekretuari egokitutako doktorego-programen eskaintza zabalaren aldeko txostena helaraztea erabaki zuen. Eskaintzak barne hartzen ditu Zientziari buruzko 15 programa, Osasun Zientziei buruzko 10, Ingeniaritzari eta Arkitekturari buruzko 15, Gizarte Zientziei eta Zientzia Juridikoei buruzko 16 eta Arteari eta Humanitateei buruzko 9.

Halaber, Osoko Bilkurak graduondoko 43 berezko tituluren, 2 graduren, ikasketa osagarrien 6 ikastaroren eta Giza Zientzien gradu-aurreko berezko tituluren tasa akademikoak zehaztu zituen. Lehenengoan artean, 6 berezko titulu berriak dira, 12 tituluren prezioa aldatu da eta 25 tituluk aurreko ikasturteko tasak dituzte. Gradu ikasketen prezioa ez da aldatu. Ikasketa osagarriei dagokienez, 6 ikastaro berriak dira, eta tasak 250 eta 2.880 euro bitartekoak dira ikasturteko. Azkenik, Kontseiluak Giza Zientzien gradu-aurreko tituluren tasak zehaztu ditu; eta 12 euro kreditukoak dira.

Lankidetzak

Bestalde, Bilkurak bilera berean honako hauek onartu zituen:

- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea “Asociación KICAgeing” elkarteari atxikitzea. Elkartearen xedea Europako hegoaldean osasunari eta zahartzeari buruzko Knowledge and Innovation Communities (KIC) ezartzea Estatuan sustatzea da.
- Bilboko Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola zaharraren eraikina zerbitzu publikotik kentzea eta Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzea.
- Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak aintzatetsi dituen ikerketa-taldeen puntu-sailkapenari erreparatuta, 6 lankidetzak eman ditu. 2013-2014. ikasturteko bekak dira, eta deialdia Hezkuntza Ministerioak antolatuta zuen. Laguntza jaso duten sailak honako hauek dira: Kimika Organikoa I, Kimika Analitikoa, Neurozientziak, Ekonomia Analisiaren Oinarriak I, Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia eta Komunikazioen Ingeniaritza.

Azkenik, Gizarte Kontseiluak aurrekontuetan zenbait aldaketa egitea onetsi zuen, baita irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarriei buruzko ebazpenak betetzeari buruzko hainbat erabaki hartu ere.

UNIBERTSITATE-IKASLE OHIEN LANGABEZIA: 6.000 MILIOI EUROKO “ALFERRIKAKO” INBERTSIOA


“Alferrikako” inbertsioa langabezian dauden unibertsitate-ikasle ohien kopuruari esaten zaio, eta 6.000 milioi eurokoa dela jotzen da; beraz, gastu publikoak inoiz baino gehiago eraginkorra izan behar duen une honetan, hain zuzen ere, zifra horrek eztabaida sakonak piztu behar ditu, inbertsio hori “*produktiboa*” izan dadin; behintzat, hori da *Empleo Juvenil en España* deritzon txostenaren ondorioa. Txosten horren helburua gazteen laneratzea bultzatzeko prestakuntza-jarduerei buruzko iritziak ematea da, eta egileak honako hauek izan dira: Trabajando.com, Univeria eta McKinsey & Co.

Txostenak enplegua sortzeko politika aktiboak ere aztertzen ditu, epe laburrean ekintza-baliabidetzat eta herritar langabetuen egoera birmoldatzeko tresnatzat hartuta. Ondorio gisa, txostenean azaltzen dute arazoaren muinean besteak beste honako hauek daudela: ikasleen prestakuntza oso teorikoa izatea (alde praktikoa alde batera utzita), lan-merkatu berandu heltzea, eta gazteek asmo berri-tzailerik edo ekintzailerik ez edukitzea.

Txostenean lehentasunezko sei ekintza-arlo proposatzen dira. Ekintzen gai nagusia prestakuntza da, eta nazioarteko esperientzia batzuetan oinarrituta daude:

1. Prestakuntza-eskaintzaren eta lan-merkatuaren beharren arteko koordinazioa hobetzea, eta, aldi berean, unibertsitate-herritarrek beharrezko harrobi akademikoa eta ikertzailea osatzea bermatzea.
2. Prestakuntza aukeratzeko, “enplegarritasuna” funtsezko irizpidetzat (ez irizpide bakartzat) hartzea bultzatzea.
3. Prestakuntza- eta lan-merkatua gardenagoa sortzea, eskatzen diren eta ematen diren gaitasunei dagokienez.
4. Prestakuntzaren osagarri praktikoa areagotzea, eta Bolognako prozesuak jada bultzatzen duena azpimarratzea.
5. Asmo eta kultura ekintzaileak sustatzea.
6. Enplegua sortzeko politika aktiboen eraginkortasuna optimizatzea eta handitzea, prestakuntzaren eta langabetuen birziklapenaren funtsezko elementutzat hartuta.

Autonomoen kopurua Europako biztanle guztien kopuruaren aldean (2010)



Iturria: Global Entrepreneur Monitor, EUROSTAT

UNIBERTSITATEEN EKOIZPEN ZIENTIFIKOAREN ARABERA, EUSKADI 7. POSTUAN DAGO I-UGR RANKINGEAN


Ekoizpen zientifikoari eta eraginari dagokienez, EAE 7. erkidegoa da Espainiako estatuko unibertsitateak arlo eta zientzia-diziplinen arabera sailkatu dituzten I-UGR rankingen 4. edizioan, 2013koan. Ranking horietan emaitzak lehendabizi autonomia-erkidegoen arabera taldekatu dira. Euskadik Kimika, Ingeniaritza Kimikoa eta Fisikan ditu posiziorik onenak.

Unibertsitate publikoen eta pribatuen I-UGR ranking horrek kontuan hartzen ditu eragin eta entzute handiena dituzten nazioarteko aldizkarietan argitaratutako ikerlanak, eta Espainiako unibertsitateek zenbait ezagutza-alorretan ikerketa

egiteko duten sistemaren indarrak eta ahuleziak ezagutzea du helburu.

Rankingean 12 campusi eta 37 zientzia-diziplinari buruzko emaitzak eman dira. Horrela, errazago ulertzen da unibertsitateek zein espezialitatetan duten eragin handiena. Horrez gain, unibertsitateak *FQ2A-Index* indizearen arabera sailkatuta daude. Indize horrek ekoizpen zientifikoa eta eragina aztertzeko sei adierazle bibliometriko erabiltzen ditu, eta kalkuluak egiteko, Thomson Reuters-en datu-baseak hartzen ditu oinarri. 2013ko edizioak lehendabizi erakusten du autonomia erkidegoen arabera gehitutako emaitzen posizioa.

EREMUAK: Autonomia-erkidegoen indarrak, unibertsitatei buruzko rankingetan duten posizioen arabera



GAZTEEK LAN-MERKATUAN ZEGOEN LEKUALDATZEAREN AURKAKO OHIKO JOERA ALDATU DUTE

Krisiaren ondorioz, lanerako indarra jatorrizko lekuan ainguratuta izateko klaxa bertan behera uzten ari da. Izan ere, hiru gaztetako bik atzerrian bilatzen dute lana, eta gazteen % 51 Europatik kanpo ere lan egiteko prest daude. Hala dio InfoJobs atariak eta ESADEk lan-merkatuaren egoerari buruz egin duten azken txostenak. Infojobs enplegu-ataria jada joera horren jakinaren gainean zegoen, atariaren zerbitzuak eskatzen zituztenen % 26k lana bizi ziren erkidegotik kanpo bilatzen zutelako.

Bestalde, enpresetan praktikak egiteari dagokionez, orain arte lana aurkitzeko ohiko bidea izan bada ere, txostenak jaso du gazte inkestaren % 65k ez dituztela tresna erabilgarritzat hartzen. Hala eta guztiz ere, 30 urtetik beherako lau gaztetako hiru praktikak ordainsaririk jaso gabe egiteko prest daude.

Informe 2012 sobre el estado del mercado laboral en España txostenak Infojobs enplegu-atariaren 2012ko jardura aztertu du; hori dela eta, ekonomiaren testuinguruari eta lan-merkatuaren egoerari buruzko ikuspegi zabala ematen du. Horrekin batera, hautagaien eta enpresari iritzi batzuk jaso ditu, egoera ikuspuntu ezberdinetatik aztertzeko. Txostena 2008az geroztik urtero argitaratzen da.

Eskaintzak eta eskaerak xehetasunez aztertu ondoren, honako ondorio hauek ateratu dituzte:

- **Mugikorren sektorean eta energia-sektorean aukera gehiago daude:** 2012an lan-aukera handienak zituzten arloak honako hauek izan ziren: *Merkataritza eta salmentak*, betetzeko argitaratu ziren lanpostuen % 30 arlo horretakoak izan baitziren; eta horren atzetik, *Informatika eta telekomunikazioak* (% 20) eta *Bezeroaren Arreta* (% 13) zetozen. Bestalde, beste profil batzuk gorabidean zeuden: *community manager*-a, *social media manager*-a, aplikazio mugikorren programatzailea, *html5* programatzailea eta eraginkortasun energetikoan espezialista diren merkataritzagenteak.
- **Lehia handiagoa:** krisia hasi zenetik, lehia % 157 igo da lanpostuetan; bereziki, *Enpresen Administrazioan eta Giza Baliabideetan*, arlo horietako lanpostu huts bakoitzeko 200 hautagai baino gehiago aurkeztu baitziren.
- **Gain-kualifikazio handiagoa:** azken urteotan gain-kualifikazio areagotuz joan da; izan ere, hautagaien % 45ek unibertsitate-ikasketak eginda zituzten, ikasketa-maila hori lanpostuen % 24k baino eskatzen ez bazuten ere.
- **Mugikortasun handiagoa:** aurreko urtean, eskatzaileen % 26k bere lurraldetik kanpoko lanpostuak betetzeko izena eman zuten. Lana bilatzeko gehien aukeratu ziren autonomia-erkidegoak Madril, Katalunia eta Andaluzia izan ziren.

(4. orrietan jarraitzen du)

- **Autonomo gisa lan egitea:** gero eta hautagai gehiagok *freelance* gisa lan egitearen aldeko apustua egiten dute. Eta enpresek irtenbide hori gero eta gehiago eskatzen dute, langile finkoak izateak eskatzen dituen kostuei aurre egin behar ez izateko. 2011ko emaitzen aldean, autonomoei zuzendutako lanpostuak % 36 igo ziren, eta 2008ko emaitze-kin erkatuta, zazpi aldiz biderkatu ziren.
- **Soldata txikiagoak:** lan-eskaera handia eta krisiaren iraupen luzea direla eta, enpresariak lehen ordaintzen zituztenak baino soldata txikiagoak ordaintzeko aukera dute.

2012an, enpresetan ordaintzen ziren soldatak % 2 jaitsi ziren, 2011koekin erkatuta. Eskaintzen erdien (% 47) gehieneko soldata 12.000 eta 24.000 euro bitartekoa izan zen. Lanpostuen % 8k baino ez zuten urteko 50.000 eurotik gorako soldata eskaintzen, eta profil horien artean zuzendari nagusiarena eta ingeniari-za-zuzendariarena zeuden.

Ikerlana egiteko, guztira 16.800 lan-eskatzailerik inkestatu zituzten; bai eta sektore eta tamaina ezberdinetako enpresetako langileak aukeratzeko 444 arduradun ere.


ELGA-REN ETA EB21-EN HEZKUNTZAKO BATEZ BESTEKO GASTUA BAINO % 15 HANDIAGO DA ESPAINIAKO ESTATUKOA

2010ean, hezkuntza publikoan matrikulatutako ikasle bakoitzeko batez besteko gastua Espainiako estatuan 9.608 dolarrekoa izan zen, hezkuntza-maila guztiak kontuan hartuta (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta hirugarren hezkuntza); beraz, gastua ELGaren eta EB21en batez besteko gastua baino % 15 handiagoa izan zen. Hirugarren hezkuntzako gastua 11.925 dolarrekoa izan zen; ELGan egindako batez besteko gastua baino ia 600 dolar gehiago, eta EB21en egindako batez besteko gastua baino 1.200 dolar gehiago. Datu horiek aintzat hartuta, ELGaren *Education at a Glance* 2013 ikerlanak (Hezkuntzari buruzko ikuspegia) ondorioztatu du, Espainiako hezkuntza sistemak, inguruko herrialdeetakoekin erkatuta, finantzaketa handiagoa jasotzen duela hezkuntza-maila guztietan. Ikerlan horrek hezkuntza-sistemen bilakaera, sistemen finantzaketa eta prestakuntzaren eragina merkatuan eta ekonomian aztertzen ditu.

Urteko gastu publikoa hezkuntza publikoko ikasleko.

2010 *Education at a Glance* ikerlaneko B3.4 Taula. ELGari buruzko adierazleak

Erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera, dolar baliokideetan bihurtuta BPGdrako



Gastua handiagoa da, neurri handi batean, Espainiako hezkuntza publikoan (pribatuan ez bezala) irakasle bakoitzari esleitutako ikasle-kopurua maila guztietan ELGakoa baino txikiagoa baita.

Ikasle-ratioak irakasleko eta ikasgelako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH)


lehenengo etapan. 2011. *Education at a Glance* ikerlaneko B7.2b; D2.1; D2.2 eta D2.3 taulak. ELGari buruzko adierazleak

	Espainia	ELGA	EB21
Ikasle-kopurua irakasleko	10,3	13,3	11,2
Ikasle-kopurua irakasleko (hezkuntza publikoan)	8,9	13,2	11,0
Ikasle-kopurua irakasleko (hezkuntza pribatuan)	14,8	12,5	11,3
Ikasle-kopurua eskola teorikoko ELGAn (ikasgela-kopuruak)	15,2	17,3	-
Ikasle-kopurua derrigorrezko irakasgaietan (taldeetako ikasle-kopurua)	24,3	23,3	21,8
Ikasle-kopurua taldeko derrigorrezko irakasgaietan (hezkuntza publikoan)	23,8	23,4	21,8
Ikasle-kopurua taldeko derrigorrezko irakasgaietan (hezkuntza pribatuan)	25,3	22,5	22,0

Unibertsitateen finantzaketa

2010-2011. ikasturtean, unibertsitate-ikasleko urteko batez besteko gastua (bekak, diru-laguntzak edo maileguak kontuan hartu gabe) 14.072 dolarrekoa izan zen Espainiako estatuan, hots, ELGaren batez bestekoa (13.528) baino % 4 handiagoa; eta ikasleek ordaindutako tasak 1.129 dolarrekoak izan ziren. Hori dela eta, Espainiako estatua tasa txikiak eskatzen dituzten herrialdeetako bat da; Italian (1.407 dolar) eta Frantzia (200 eta 1.402 dolar bitartean) eskatzen diren tasa-mailen parekoak dira. Diru-laguntza edo mailegu publikoak jaso zituzten ikasleek ehuneko % 35ekoa izan zen.

Urteko batez besteko gastua ikasleko (2010)



Oharra: Datuak ikasleko urteko batez besteko gastu handienetik txikienera sailkatu dira. Ikasleko urteko batez besteko gastuari buruzko datua zehazteko, bekak, diru-laguntzak edo maileguak (tasa akademikoaren kopuru osoa edo zati bat konpentsatzen dutenak) ez dira kontuan hartu. Estatu Batuetako, Norvegiako, Irlandako, Erresuma Batuko, Brasilgo, Portugalgo, Mexikoko, ELGAKO eta EB21eko datuak hirugarren hezkuntza osoari buruzkoak dira.